

# Erromako erlijioa Euskal Herrian

*En la relativa y desigual romanización de Euskal Herria se constata de inmediato una doble presencia religiosa: la de la religión que traían consigo los colonizadores, y la que los nativos habían heredado y vivían en su propia tradición. De ese encuentro y posterior convivencia hubieron de nacer, probablemente, creencias y prácticas entreveradas, sobre todo en las poblaciones más romanizadas. Aquí me limitaré a consignar hechos y lugares religiosos romanos de Euskal Herria.*

Erromatarrek Euskal Herria beren mendean hartu ondoren, nagusi berrien erlijio ofizialari ere leku egin zitzaion hemen; aldi berean, tresna eta ondorio izan zen erlijioa gure lurraldea erromatartzean. Horretarako, kolonizatzaileen ohitura erlijiosoek, jaiek, urteko egutegiak, administrazioako arauak, eta erlijioaren beraren bizi-egiturak balio izan zuten.

Kolonizatzearen logikari jarraituz eta eza gutzen ditugun aztarnen arabera, segurutzat eman behar da Euskal Herrian ere horrek bere ondorioak izan zituela, eta erromatartze sozio-politikoarekin batera, erlijiosoak ere egon zela haien gizarte erromatarra hemen finkatu eta aginte politikoa eta eragin soziala indarrean egon ziren leku eta garaietan.

Beraz, erromatar erlijioa Euskal Herrikoa ere izan zen, hemengo hiri eta udal erromatarretakoa esan nahi dut.

## **Euskal Herriaren erromatartzeaz**

Ez orduko Euskal Herri zabalagoa, ez gaurko Euskal Herri mugatuagoa hartu zuten erromatarrek aldi berean. Denbora luzez, Euskal Herrian eta inguruko lurraldeetan arma bidez egin zuten aurrera Erromako soldadu eta herritarrek, soldadu ohiak ere tartean zirela.

Erromatartzea abiarazteko lehen baldintza zen *Pax romana* delakoa. Horrek herri menderatuak maneatu eta Erromaren bide "onean" jartzea esan nahi zuen. Kristo aurreko azken bi mendeetan gertatu zen hori Euskal Herrian, parte on

batez behinik behin. Hurrengo urratsak apurka-apurka eman ziren, lurralde-jabetasuna seguratu ondoren eta antolaera berri bat ezartzean.

Badakigu baskoiak eskuz esku edo ibili zirela erromatarrekin Ebro Goieneko gerretan (lehenengo K. a.ko II mendeko gerra zeltiberiarretan, eta gero, hurrengo mendeko gerra zibiletan); gainerako tribu ezagunei buruz (autrigoi, karistiar eta barduliarrez) iturri erromatar literarioek albiste gutxiago ematen digute. Gerra haietako tarte batean sortu ziren Errioxako *Calagurris* baskoindua (K. a.ko 178an) eta mende bete geroago Nafarroako *Pompaelo*, gure Iruñea (K. a.ko 75ean).

Denbora pasatu eta erromatartzeak gora egin ahala, Euskal Herriko herrigune erromatarrek aitorten sozio-juridiko hobeak irabazi zituzten. Erdigune baten inguruan antolatutako hemengo zenbait eskualde ("civitates" deituak) "municipia" izatera ere iritsi ziren. Ibilera mantso baten azken emaitza zen hori, bere barruan gizarte erromatarra zuena, erakunde politiko jakinekin, bertako bizilagunei zuzenbide politiko erromatarra edo latinoak ematen zitzaiela. Horrek, gainera, zerikusi zuzena zuen erlijio-bizitzarekin ere.

Erromatarrek sortu edo batzuetan zaharrak berrantolatu eta garatzen lagundutako *civitates* haiek balio izan zuten bertako erdigunea ez ezik eskualdea ere antolatu eta gobernatzeko. Lurraldearen antolaera sustatu zuten beraiek. Erromatartzearen lanabes erabakigarria gertatu zen hori dena, noski.



Horrek guztiak bere helburuak lor zitzan, herriguneen arteko harremanak ere sustatu eta lotu behar ziren. Asmo horiek aurrera eramateko (eta erromatarren hemengo gizartea eta ekonomia garatu ahal izateko) bide-sare nagusia eraiki eta apalagoa ere zaintzen lagundu zuten agintari kolonialet, neurriren batean bertako jatorrizko bizilagunen laguntza ere tarteko zela; horretan gure arteko bizpahiru galtzada erromatar nagusiek eta berorien inguruetakoko bide eta bidezidorrek samurtu zuten berehala edo geroago hainbat tokitara heldu eta erromatartzeari halako batasunen bat ematea. Erlijioak ere bere lekua izan zuen aldakuntza horien barruan.

### Erlijiotasunaren aztarnak

Erlijiotasun herritar pribatuaz apenas daukagun ezer esaterik, baina uste dezakegu hemengo erromatarrek Inperioko beste tokietako sinesgai eta ohiturak zaindu zituztela: betiko jainkoak, ohiko errituak, etxeko eta tenpluetako usadioak, egutegiak zekartzan jaiak eta.

Erlijio ofizialak, baina, arau ezagunak zituen, ez orokorrean Inperio osoan bakarrik, baita Probintzia bakoitzeko kargudunekin eta tokian tokiko Udaletan ere. Herriguneez beren izaera sozio-juridikoa gora egin ahala, erlijioarekikoa are antolatuago egon ohi zen. Ezagutzen da, adibidez, herriguneetako Udalek nolako betebeharrak erlijio-soak zituzten, apaiz eta zerbitzari izendatuekin, urteroko aurrekontu, sakrifizio, ospakuntza, Enperadoreari zor zitzaion gurtza eta abarrek.

Iturri literarioetan ez dut ezagutzen Euskal Herriko erlijio erromatarraz espresuki ari den testurik; beraz, bestelako bideak bilatu behar ditugu hartaz zerbait jakiteko; arkeologiatik datozkigun aztarnak dira batik bat begiratzekoak: jainkoei eskainitako leku, aldare eta harlandu idatziak, herri edo *villae* deituetan aurkitutako

eraikin-hondakinak, beharbada garaiko altxor edo txanpon galduak.

Osorik gordetako tenplu paganorik ez dugu aurkitzen Euskal Herrian, nahiz eta ez den falta halakoan honkinen bat edo beste (Oiasso, Iruñea). Nahikoa seguru esan daiteke *Calagurris* (Kalahorra), *Graccurris* (Alfaro), *Cara* (Santacara) edo *Pompaelo*-n, berauek lortutako goi-estatus politikoari zegokion tenpluren bat izango zutela.

Beranduko Inperioan (K. o.ko III-IV. mendeetan), hainbat lur-jabe handik hiri handiagoetatik landetara pasatu zirenean, bizitzeko eta laborantza sustatzeko *villae* batzuk sortu zituzten; inoiz edo bestetan, etxalde ederrak, gainera. Aberatsen mezu kultural eta erlijiosoak ez dira falta, bertako marrazki, margolan, estatua eta mosaikoetan. Hain zuzen, mosaiko hauetan ikus daiteke erromatar mitologiaren oihartzun apainen bat edo beste. Nafarroan daude horrelako artelan batzuk: ederrenetakoa, ederrena ez bada, Arronitz-Arellanoko "Musen mosaikoa", edo nahiago bada Iruñeko Teseo eta Minotauroarena.

Gure geografian erlijio-agerpen zabalagoa izan da garaiko txanpon erromatarrena, eta ez bakarrik Euskal Herriko eskualde erromatartueetan, baita mendialdeetako zoko erromagoetan ere. Erromak, bere garaian, zentralizatu egin zuen Inperioko txanpongintza, eta ondorioz horrek balio izan zion txanponetako idazkun eta irudien bidez mezu erlijiosoak hedatzeko. Numismatika erromatarra oso interesarik egon zen diru bidezko "dotrina"erlijiosoa irakasten.

Bukatzeko, era berean erlijio pribatuak bere azalpenak zituen: etxeko aldaretxoak, *ara votiva*-k ("promesa" azalpenak) eta guraso eta arbasoen hilarriak. Zalantzarik gabe, horrek guztiak garaiko erlijiotasunera gerturatzeko gaitu.

**Joseba Intxausti**